

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

Ezker Iraultzailearen aldizkaria

www.euskalherriasozialista.net

Dispertsioa, tortura eta **preso** politikoak

PPren eta 155aren bloke monarkikoaren
errepresioa garaitzeko beharrezkoa
da sozialismoaren aldeko masen
borroka iraultzailea indartzea!

68 zenbakia - euro 1
laguntzarekin: 2 euro



2. Editoriala: Dispertsioa, tortura eta preso politikoak • 4. Trumpek Jerusalem Israelgo hiriburu
izendatu du haserre handia eraginez • 6. Elkarrizketa Iria Martinezi • 11. Borrokak aurrera
jarraitzen du sektore soziosanitarioan • 12. Hezkuntza publiko ez unibertsitarioko greba
eta mobilizazioak EAEn • 13. Geure buruak bizirik nahi ditugu! Aske eta borrokalari!
• 14. Sozialismoa eta nazionalismoa • 16. A21 Katalunian: 155 blokearen porrot historikoa

Dispertsioa, tortura eta preso politikoak

PPren eta 155aren bloke monarkikoaren errepresioa garaitzeko beharrezkoa da sozialismoaren aldeko masen borroka iraultzailea indartzea!

Azken hiru hilabeteetan Katalunian bizi izan diren gertaerek agerian utzi dute PPren gobernua —Ciudadanos eta PSOEn babesarekin— eta Estatu espainiarreko aparatua prest daudela frankismo garaiko errepresio basatiena erabiltzeko kaleko mobilizazioaren aurka, eta 78ko erregimena edo klase kapitalistaren pribilegioak desafiatzen dituen edozein ekintzaren aurrean.

Euskal Herrian berriz, PPren nahiz PSOEn gobernuek estatu-aparatuarekin batera gauzaturiko errepresioa ez da berria. “Dena ETA da” akusazioa behin eta berriz erabili da komodin gisa alderdiak ilegalizatzeko, bi egunkari ixteko, mugimendu sozialak kriminalizatzeko, ekintzaileak atxilotu eta torturatzeko eta abar luzea. Nahiz eta 6 urte pasa diren ETArekin su eten finkotik eta 8 hilabete desarmatze-tik, erreakzioarentzat “dena ETA da” komodia izaten da erabiliena. Azken aldian gainera, Euskal Herri-tik kanpora esportatzen ere hasi dira etxe kaleratzeen aurkako gisako mugimendu sozialen aurka, ekintzaileen aurka, titiriteroen, twiteroen, raperoen... aurka, eta orain baita katalanen aurka ere!

Egun 303 euskal preso daude. Gehiengo Estatu espainiarreko eta frantseseko kartzeletan daude sakabanatuak, %80a baino gehiago etxetik 400km baino urrunago. 13 pre-

so daude gaitz larriekin, eta soilik 2 daude Euskal Herriko kartzeletan eta 3 espetxealdi arinduan. Ibon Iparragirre VHI gaixotasuna azken fasean duen preso Alcala Mecotik Arrasateko Aita Menni zentrora lekualdatzea, eta ez etxeratzeak beste behin erakusten du euskal presoak eta beren senide zein lagunek jasaten duten krudeltasuna. Bidaiei zigor ekonomikoa, asteburuko bidaia luzeak, errepideko istripuen arriskua... Oinarrizkoenak diren giza eskubideak urratuz, argi dago espainiar gobernuak dispertsio politika mendeku gisa eta beren ustezko garaienaren erakusgarri gisa erabili nahi duela.

EHUko Kriminologia Institutuak Eusko Jaurlaritzaren eskariz tortura kasuen inguruko txosten bat argitaratu berri du. Bertan zenbatu diren 4.115 kasuek, bide ofiziale-tatik, aurrez soberan ezaguna zen errealitate bat egiaztatu besterik ez du egiten: inkomunikazioak tortura basatien praktika sistemati-koa esan nahi izan du eta izaten jarraitzen du. Frogatu den bezala, kasu askotan tortura hauek erakunde armatuarekin zerikusirik ez zuten aurka ere erabili dira. Informe honek, kasu guztiak zenbatzera ez dela iristen onartuz, tortura praktikak %69an kolpeak, %25ean asfixia eta %22an sexu abusuak izan direla azaltzen du.

Baina txosten honek Eusko Jaurlaritza zuritzea helburu bazuen ere, Ertzaintzari egotzitako 310 kasu eta udaltzainen 4 kasu ere biltzen ditu. Noski EAJk zuzenduriko Ertzaintzak funtsezko papera jokatu duela Euskal Herrian eman den errepresioan. Dispertsio politikak EAJak babestuak eta bultzatuak izan ziren, atxiloketak eta torturak beti eman dira bere konplizitatearekin. Alderdien legearen aurka zegoela esan bazuen ere, Ertzaintza izan zen hori gauzatzeko arduraduna eta EAJ bertatik eskainuak lapurtzen hoberen atera zena. Polizia kargak, jipoiak manifestariei edota adibidez Ertzaintza buru izendatzea Inigo Cabacas erail zuen operazioa zuzendu zuena... mugimenduak aski eza-guna du errealitate hori. EAJ, ekintzetan beti izan da errepresioaren defendatzailearik sutuena. Keinu hipokritekin eskuak garbitzen saiatzen bada ere, inoiz ez du zalantzarik egin bere interesak eragozten dituen mobilizazio baten aurka errepresio handiena erabiltzeko.

PP buru duen estatu aparatua ez dago prest Euskal Herrian azken hamarkadetan finkatu dituen errepresio politiketan atzera pausorik egiteko. Badaki beharrezko izango zaizkiola hazten ari den mobilizazio sozialen aurka, Euskal Herrian nahiz kanpoan. Sektore atzerakoietatik alderdien legea egokitzea



planteatu da alderdi independentisten aurka aplikatu ahal izateko. Modu berean ohartarazi zaigu 155a EAEn edo Nafarroan erabiliko dutela beharrezkoa izanez gero. Alderdien legeak, 155ak edota Mozal legeak erabat agerian uzten dute Estatu espainiarraren eta alderdi konstituzionalisten deriba autoritarioa. Baina, bestalde, klase dominatzaileak langile eta gazteek kaleetan izan dezaketen indarrari dion beldurra ere erakusten du. Katalunian erreakzioak masen mugimendu baketsu baten aurka egin behar izanak zentzu honetan salto kualitatibo bat ematera eramán du. Jordiak eta consellersak epaitzeko erabili diren sedizio eta errebolta delitua edo gorroto delituak formulatuak

izan dira zuzenean edozein ezkerreko militante edo ekintzaileraren aurka erabiltzeko, eta 78ko erregimenaren aurka protestatzea bururatzen zaión edonorren aurka erabiltzeko. Baina hori ez da aplikatzen noski faxisten aurka. Horiei inpunitate osoa ematen zaie polizia gorputzen barnean eta banda antolatuetan nahi dutena esan eta egiteko, langile mugimendua, emigratzaileak edota homosexualak seinalatu, mehatxatu, jipoitu, erail, etab. egiteko.

Katalunian urriaren 1ak ebidentzian utzi zuen indar errepresiboek duten inpotentzia milaka pertsonen modu baketsuan beren erabakitzeko eskubidea defendatzeko erabaki tinkoaren aurrean. Baina gainera, ikusi ahal izan dugu nola

errepresioak mugimendua sakabatu eta beldurtzetik urrun elkar-tu eta indartu egin duela. Beste momentu historiko batzuetan eman den bezala, masa mugimendua-ren aurka erabiltzen den errepresioak iraultza elikatu du. Horregatik, errepresioaren aurkako borroka ezin da bereizi sistema hau eraldatzeko borrokatik. Ez da giza eskubide auzi bat soilik, haratago doa. Ez dago aurpegi gizatiarreko kapitalismorik. Klase dominatzailea sistema kapitalistaren aurkako masen altxamenduari aurre egiteko pres-tatzen ari da, baina egiten dutena eginda ere, ez dira gai izango programa eta antolakuntza iraultzaile batekin armaturik dagoen langile klasea geldiarazteko.

Trumpek Jerusalem Israelgo hiriburu izendatu du haserre handia eraginez

SHAHAR BENHORIN ETA YASHA MARNER
Socialist Struggle Movement

Jerusalem Israelgo hiriburu alde-bakarrez aitortu izanak, praktikan, egungo *statu quo*a berretsi du: Ekialdeko Jerusalemen okupazioa, palestinarrei Jerusalem hiriburu izango duen Estatua ukatzen zaien aldi berean. Aitortza horrek, mundu guztian eta, batez ere, Palestinan protesta mordoa piztu du eta jadanik odolez zikindurik dago: hildako lau palestinar, ehunka zauritu, Israel hegoaldean erori diren misilen jaurtiketa eta bonbardaketak Gazan.

Establishment eta eskuin israeldarrentzat aitortpen horrek *argi berdea* esan nahi du, kolonoen asentamentuak zabaltzen eta Jerusalemgo auzo palestinarren *judutzearekin* jarraitzeko, baita etxebizitzaren eraske-ta sistematikoarekin, eguneroko jazarpenarekin eta palestinarren des-jabetzearekin jarraitzeko ere.

Denbora da jada Jerusalem hiriburu palestinar bat ezartzeko saiakerak oro saihesteko pausuak ematen ari direla, AEBko administratitzaren isiltasun konplizearekin. Trumpek babes isil horri hitzak jarri dizkio. Bere administratitzak bi estaturen irtenbidea babestuko duela esaten duenean argi uzten du Estatu palestinar baten *sorrera* babestuko duela baldin eta soilik Israelek hori onartzen badu, *de facto* okupazio bortitz eta alde-bakarrekoari babesa emanez.

Nazioarteko erreakzioak

Alabaina, establishment iparramerikarrek funtzionario asko —CIAko zuzendaria, besteak beste— beldur dira inperialismo estatubatuarren interesak kaltetuak suertatzeaz AEBren aurkako nazioarteko haserre baten ondorioz edota Ekialde Hurbileko eremuan botere iparramerikarra kolokan geratzen bada.

Maila internazionalen erregimen gutxi batzuk (Taiwan, Hungaria...) baino ez daude Jerusalemen inguruko politika berri hori onartzeko prest, eta, gehiengoa ez da ausartuko Trum-pen ildo jarraitzera. Batetik, haien kontsiderazio estrategikoengatik, eta, bestetik, iritzi publikoaren oposizio esanguratsuenengatik. Errusiako oposizio berriak, bestalde, Mendebaldeko Jerusalem Israelgo Estatuaren hiriburu eta Ekialdeko Jerusalem etorkizuneko Estatu palestinar baten hiriburu kontsideratu ditu.

Erdialdeko Ekialdean, erregimen arabiar suniak Estatu israeldarrekin aliantza estrategikoak sendotzeko saiakerak egiten ari badira ere, bertako iritzi publikoaren sentimendua eta herrialde horietan askapen nazional palestinarrekiko dagoen elkartasun handia hartu behar du-te kontuan.

“Mendeko akordioa”

Trumpek buruzagitza palestinarri mezu bat bidali dio: ez badituzte beren baldintzak onartzen eta Netanyahu-ren gobernuari men egiten, Estatu palestinar baten inolako aitortzarik onartzen ez duen gobernu berari, AEBk bere *prezioa* kobratuko du. Horregatik, Autoritate Palestina-rra modu publiko eta hain gogor horretan presionatzeak are gehiago hondatzen du edonolako “mendeko akordio”-ra hurreratzeko oinarri oro.

Trumpek inperialismo iparramerikarri moztasuna kendu dio, gatazka palestinar-israeldarrean izan dezakeen *bitartekari inpartzialaren* patera gezurra dela agerian utziz. Ora-in arte, Mahmoud Abbas lehendakari





palestinarra Trumpekin adiskidetua zegoen, baina, palestinarren gehien-goak ez du Trumpen bake iruzurtian sinesten eta nahiago luke Abbasek dimittitzea, zeinak AEBrekin harremanak geratzeko eta AEBko lehendakari eta lehendakariordearekin zituen bilerekin aurrera ez jarraitzea erabaki duen. APko liderrak badakite Israelgo erregimenak ez duela onartuko beste potentzia inperialistak batek —Errusia edo Europar Batasuna— negoziatzioak burutzea.

Hamasen liderrei dagokionez, ez da unerik hoberena Israelen kontrako enfrontamentuen aukera berri baten zat. Beren esperantzak Al-Fatahekin (Abbasen alderdia) “adiskidetze prozesuan” jarrita zeuzkaten, Egiptoko Al-Sisiren erregimenak babestu duena. Baina ez du funtzionatu. Autoritate Palestinarrak uko egiten dio Gazari inposaturiko zigorrak kentzeari eta Hamasek uko egiten dio desarmatzeari. Gazarako inolako irtenbiderik eskaini gabe, Hamasek “Intifada berri batera” dei egin du Cisjordania eta Jerusalemgo eremuetan, borroka

palestinarra aurrera eramateko duen estrategia sinesgarri baten gabezia tapatzeko helburuarekin.

Protestak Palestinan

Okupazioaren erregimenaren aurkako altxamenduaren ideiak babes zabala dauka 1967an okupatutako eremuko palestinarren artean. Aldi berean, pessimismo sakon bat existitzen da borroka horren bidez lor litezkeen konkista potentzialekiko. Asentamentu israeldarrek eta okupazioaren dikadura mehatxatuko dituen masen protesten garapena premiazko behar bat da; baina, bakearen aldeko borrokak beharrezkoa du okupazioaren eta, baita ere, langile klasearen eta behartsuenen politiken aldeko borroka zabal bat, gatazkaren alde bietan. Ez da ahaztu behar Netanyahu Trumpekin deklarazioa harreta desbideratzeko erabiltzen ari dela: ez bakarrik okupazioa zalantzan jartzen duten argudio sendoetatik desbideratzeko, baita bere gobernuaren aurka berriki azaleratu diren ustelkeriaren aurkako pro-

testen mugimendu zabaletatik desbideratzeko ere.

Protesta internazionalen babesarekin eta manifestatzaile palestinarraren aurkako errepresio militarren eta probokazio basatien aurrean, zinez beharrezkoa da elkartasun protestak mugiaraztea eta zabaltzea, langile eta ikasle israeldarren erakundeak inplikatzeko eta Jerusalem hiri “bateratu” eta oparo bat denaren irudi gezurtia saltzen duen propaganda hipokritaren aurka borrokatzea.

Bakearen eta okupazioaren aurkako borrokaren parte bezala, Socialist Struggle Movement-ek (CWI Israel-Palestina) Jerusalem bi hiriburu nazionalen ezarpena defendatzen du, eta bizitza duin bat zein eskubideen berdintasuna bermatzea. Bi estatu sozialisten testuinguruan, nazio eta klase zapalkuntzatik askeak, demokratikoak eta berdinezaleak. Soilik horrela izango da posible Jerusalem diskriminaziorik, harresirik eta txirotasunaren ghetorik gabeko hiri anitz bat bezala egiazki loratzea ahalbidetuko duen gizarte bat garatzea.

Elkarrizketa Iria Martinezi

ELAko delegatua, Bizkaiako Egoitzetako langileen borrokan

Bizkaiako egoitzetako langileek borroka gogorraren ondoren, garaipen oso garrantzitsua lortu zuten joan den urteko urrian sektoreko hitzarmenean. Emakume langilearen borroka eredu garri baten protagonista izanik, Euskal Herria Sozialistatik Iria Martinez sektoreko langile, fisioterapeuta eta ELAko delegatuari ondorengo elkarrizketa egin diogu. Bizkaiako sektoreak bizi duen errealitatearen eta gatazka honen testigantza zuzen eta biziki interesgarria eskaini digu. Aldez aurretik Ezker Iraultzaileko kideen aldetik gure esker ona eta animoak eman nahi dizkiegu Iriari eta borroka honen protagonista guztiei.



EHS.- Orain dela urte bat hasi zenuten borroka. Zer eraman zintuzten hori hastera? Zein lan baldintza aldatu nahi zenituzten?

Iria Martinez.- Negoziazioa 2015eko urriaren 30ean hasi zen, sindikatuen plataformak bildu zituen LHK (CRL) eginiko lehen bilerarekin. Patronalak aurreko konbenioari murrizketak egitea proposatuz erantzun zuen (lanegunetan, hobekuntzetan, soldatak izoztean...), atzerapausoak planteatuz jada gureak ziren eskubideetan. Aurreko sektoreko hitzarmenak 2015ko abenduaren 31an galtzen zuen indarra, eta patronalen inmovilismoaren aurrean 2016ko martxoaren 16an sektoreko lehen greba deitu zen. Ondoren bi, hiru eta bost eguneko grebak; aste bat, bi hiru eta lau eguneko jarraituz, eta azkenean hilabete osoko grebak eginez.

19 hilabeteren baitan 370 greba egun ondoren GESCA Patronalak aurreakordio bat sinatu zuen irailean. Baina GESCAk ez zuenez gehiengo greba jarraitu genuen. Azkenik 2017ko urriaren 27an LHKko negoziazio mahaiaren bilera batean akordio sinatu zen. Sindikatuak ezarritako gutxiengoak bildu eta soldata igoeran gainditu ere egin ziren akordio horretan.

- 1592 ordu lau urtetan: 2018-2021.
- 140 euro/hileko (+%10,6) sol-

data igoera, hiru urtetan banatuak, Erresidentzientzat eta 130 euro/hilean (+%11,36) Etxebizitza Komunitarioentzat.

- Igandeko plusa: 2,75 euro lan orduko.
- IT/AT kobertura %100.
- 20 minutuko deskantsua lan ordu gisa kontatuak; Bizkaiako erresidentzien gehiengo ez zitzairen uzten deskantsorik beren lan orduetan.

EHS.- Egun zein dira Euskadiko erresidentzien pribatizazioaren ondorioak?

IM.- Borroka honen sektorean eta menpekotasunaren eredu dagoen problematika ikustaraztea lortu dugu, jokoan dagoena pertsona zaharren zaintza antolakuntza eredu baita. Erresidentzia publikoen (IFAS) eta erresidentzia Pribatu-kontzertatu-Subkontratatu arteko ezberdintasunak nabariak dira: subkontratatueta %40-60 soldata baxuagoak, 106 ordu gehiago (atxeden denborarekin konbenio berriari esker), txanda prekarioetako langileak eta langile askoz gutxiago. Adibidez nik lan egiten dudana egoitzan, 112 erabiltzaile dituelarik, gaueko txanda 2 auxiliario/gerocultorek egiten dute 3 pisuentzat eta erizaintzako zerbitzurik gabe.

Horren guztiaren emaitza irabazi milioidunak dira, diru publikoarekin, langileei eta bertako erabiltzailei

leei eskaintzen zaien asistentzia kalitatearen kontura. Aipatzearren, 2012-2014 artean erresidentzia kontzertatu artean irabaziak ikaragarriak dira: Sanitas 2.114.000€, Grupo Igurco 3.100.000€, Residencia Caser 5.500.000€, etab. Datu hauek oso esanguratsuak dira. Ratioak berdina behar luke zentro asistentzial guztietan eta ezberdintasun ikaragarria dago, erabat zaharkituta dauden 98ko ratioek indarrean jarraitzen baitute.

Nahiz eta zerbitzu publiko bat izan, konpetentzia eta kudeaketa osoa Bizkaiako Foru Aldundiarena izan beharko lukeena, hori sozio sanitarioko enpresen poltsikoak betetzeko izugarrizko NEGOTIO bilakatu dute. *Ezin daiteke negoziatio egin pertsonen osasunarekin.*

EHS.- Zein zailtasun izan dituzte gatazka aldi honetan?

IM.- Zailtasunak... ba alde guztietatik. EITB bezalako Komunikabide publikoek eta egunkari gehienek ez ikusiarena egin digute, greba ikusezina izan zedin. *"Ikusten ez dena ez da existitzen"*. Jasandako erreprezioaz hitz egin genezake, azken hilabeteetan ohartu baikara Ertzaintzak gurekiko zuen jarreraz, greba eskubidea bere osotasunean eragotziz, adierazpen, bilera, manifestazio, etab. askatasunak urratuz. Bilboko udala ere aipatu daiteke, askotan ukatu baitiz-



kigu gure borroka gizarteratzeko ekitaldien baimenak aitzakia merkeak jarritz, BFA aurreko Karparekin gertatua bezala. Greba eta kaleko borrokako azken 19 hilabeteetan demonizatu egin gaituzte, pertsona zaharrei tratu txarrak emateaz salatu...

Bizkaiko Foru Aldundiak momentu oro eta modu lotsagabe batean babestu ditu patronalen interes propio eta bakarrak; hasierako zerbitzu minimoak igotzera iritsi zen %50tik (%60 jatorduetan) %80-90era, grebak eraginik ez zezan izan. Paradoxikoki, zerbitzu minimoen %90arekin pertsonal gehiago zegoen lanean greba ez zegoen garaietan baino. Hori gertatzen da oraindik ere Bizkaiaiko erresistentzietan. Behin greba amaitu ondoren eta lanera itzulita, Bizkaiaiko erresistentzietako delegatuen artean komentatu izan dugu, orain jende gutxiago dagoela lanean greba aldian baino.

Greba luze eta gogor honetan, enpresatik ito gaituzte lana aurrera ateratzeko, ez soilik gutxiengo zerbitzuen legeak markatzen zuen bezala arreta zuzenean, betiko lanean baizik, pertsonal guztia egongo balitz bezala; eta Foru Aldunditik zentro erresistentzietako inspektzioekin, hori bai, aldeztu aurretik zuzendariei abisaturik.

EHS.- Nola baldintzatu du borroka gehiengo handia emakumeak zaren sektore bat izateak?

IM.- Sistema patriarkal honetan, zaintzaren sektorea feminizaturik dago, gutxi baloratua eta ezkatua... 5.000 langile inguru dira Bizkaiaiko Erresidentzia eta Egunekeko Zentroen artean. Bidea ireki behar izan dugu eta geure burua ikusarazi. Borroka hau historikoa eta emakumeena izan da, emakume monoparentalak, karga familiarrekin (haurrak, gurasoak edo biak) eta soldata bakarra beraiena izanik. Idea bat izan dezakegu, nolakoak izan diren 370 egun hauek irudikatzen.

EHS.- Zein balorazio egiten duzu grebaren amaierarekin? Zer aportatu dizue prozesu honek?

IM.- Gatazka hau ez da soilik lan gatazka izan, gatazka soziala, generokoa (feminista) eta politikoa ere izan da. Lortu ditugu markatu genituen helburuak. Erakutsi dugu hau NEGOZIO bat dela. Lan merkaturuan emakumeok dugun egoera salatuz, konkretuki jasaten dugun diskriminazioan.

Esan behar dut, atzean beti ELA bezalako sindikatu baten babesa edukitzea zenbat eskertzen den, batez ere genero berdintasuneko arloa, klabea izan baita gure borrokaren babes eta sozializazioan.

Zerbait erakutsi badit gatazkak aktiboki kolaboratzearen eta parte hartzearen garrantzia izan da, dele-

gatu eta sektoreko langile gisa, hartzen genituen erabakietan. Zera ikasi dut: Gatazka bat ez dela irabazten arrazoi gure alde dagoelako edo gure aldarrikapenak justuak edo guztiz onargarriak direlako. Baizik eta lanarekin, antolatuz, bitartekoekin eta borrodatearekin irabazten da.

Egun, gure aldarrikapenekin jarraitzen dugu eta jarraituko dugu. Rationak eguneratu daitezkeen eta harreta zuzeneko pertsonalarekin eta *Babestu* bezalako senideen elkarteekin batera zehaztu dadin hori. Enpoderatuak, harro eta asebetarik, gure lankideei azaltzen diegu borroka merezi dela, gure borroka sektore guztientzat isplua dela eta konbenio on bat lortzea ez dela arloen arazoa afiliazio, antolakuntza eta tresna sindikalena baizik.

Besoak gurutzatuta geratu beharrean ondoan daukagunari batzen garenean, eskuak elkarri hartuz, gure indarrak biderkatu egiten dira. Horrela lortzen dugu gure lan eta bizi baldintzak hobetzea; eskutik heltzen diogu elkarri garai gogorrenetan borrokan tinko mantentzeko, eskua emanez ixten ditugu akordioak eta gure eskuekin lortzen ditugu garaipenak. Niretzat borroka honek esan nahi izan duena honako esarak laburtzen du: EMAKUMEAREN ESNATZEA.

Elkarrizketa osoa web orrian

A21 Katalunian: 155 b porro

Urriaren 1ean mo
mobilizatu da Kat



KONTRAPORTADAN HASTEN DA

Horrek guztiak ezin izan du geldiarazi Kataluniako milioika pertsonak duten borrokarako gogoa eta urriaren 1ean, errepresioaren aurka, legitimoki eta demokratikoki erabaki zutena lortzeko gogoa. Hauteskondeek ez dute eskuinerako biraketa erakusten, Pablo Iglesias eta Unidos

Podemoseko beste agintariak esan bezala; aitzitik, A21eko hauteskundeetan urriaren 1eko borrei eta gomazko pilotei aurre egin zieten horien mobilizazio ikaragarria ikusten da. 2 milioi pertsona baino gehiagok oihukatu dute 78ko erregimen errepresibo eta ustela suntsitzea erabaki dutela eta ez dutela onartuko errepublika katalana eraikitzeak eskubidea urratzea, hori bizi baldintzak hobetzeko eta aldaketa soziala ekartzeko tresna gisa ulertuz.

lokearen t historikoa

bilizatu zen herri berbera masiboki aluniako errepublikaren alde

PP, galtzaile nagusia

Soraya Saenz de Santamariak hauteskunde aurretik harropuzkeriaz adierazi zuen independentismoari “burua moztea” lortu zutela, baina eurak izan dira hauteskundeetako galtzaile nagusiak: Europako alderdi ustelena, frankismoaren oinordekoa, errepresioa eta Mozal Legea gogor erabili duen alderdia. PPk 2015ean lortutako botoen erdia galdu du, 11 eserleku izatetik 3 izatera pasatu da, eta ezin izango du talde parlamentarioa osatu.

Kataluniako gizartean PPk eragiten duen gorrotoaren jakitun, burgesia espainiarrak eta katalanak dirutza jarri dute (deklaraturiko 2 milioi euro eta auskalo zenbat gehiago) Ines Arrimadasen aldera ekartzeko zantzazien, beldur kanpainen biktimen eta sektore atzeratuen botoak. Hala ere, bere planak errepublikaren aldeko gehiengoa eragozteko eta bloke monarkikoak kontrolaturiko Goberna osatzeko zirenez, guztiz porrot egin dute. Csek 300.000 boto gehiago lortu ditu, baina batez ere PSCri eta PPri kendutako botoak dira, zeinak 165.000 boto-emaila galdu dituen.

Cs alderdiaren kanpainak ez du programa konkreturik izan (bere programa Ibex 35eko enpresena da). Arrimadasek baieztapen demagogikoak egin ditu etengabe: arazo sozialez kezkatzeko garaia dela esan du Procésari aurre eginez, eta enpresen ihe-

sa erabili du independentzia aldarrikatzeko gero amesgaiztoa etorriko dela esanez. Beldurraren kanpaina indartuz Katalunia Espainiaren barnean mantenduko duela esan du, prezioa edonolako izanik ere, eta kanpaina demagogiko horretan estatuko beste lekuetatik etorri diren herritar sektoreen sentimenduekin jolastu du.

Horrek ahalbidetu du Ciudadanosenk betidanik eskuinekoa izan den sektore atzerakoi baten botoa jaso izana alde batetik, baina baita Bartzelonako eta Tarragonako gerriko gorriko auzoetako eta hiri industrialetako langile familia batzuen botoak lortzea ere; independentziaren ondorioen beldurrez, krisiaz etsita eta CCOO eta UGT sindikatuen itunen politiken ondorioz desmobilizaturik eta estatu mailako ezkerren auzentziaz dezepzionatuta.

Podem Catalunya en Comú alderdiaren akats larriak

Harrigarria bada ere, Catalunya en Comú eta Unidos Podemos alderdiek ez dute inolaz ere beren kanpainaren erdigunean kokatu 155aren aldeko bloke atzerakoi-monarkikoaren aurka eta herri katalanak duen autodeterminazio eskubidearen aldeko borroka. Uleko emaitza eta errepublika aldarrikapen sozialekin elkarrekin beharrez, nazionalismo espainolistak bultzaturiko ideiak zabaltzen lagundu dute. Maila berean jarri di-

tuzte alde batetik Jordiak, Forn eta Junqueras beren ideientatik kartzelan mantentzen dituzten atzerakoiak eta Estatu frankista eta azken 40 urteetan modurik zuzenenean monarkia eta 78ko erregimena kinka larrian jarri dituen masen mugimendua. Gainera, uko egin diote preso politikoak daudela onartzeari eta beren askatasuna eskatzeari.

Unidos Podemoseko eta CatComúko agintariek diskurtsoan Cs antzera Uleko erreferenduma legez kanpokoa izan zela ere esan dute, errepublikaren aldeko borroka faxismoa esnatu duela, eta 155a justifikatu dute, Monederok egin bezala. Horrek guztiak ura erreakzioaren errotara bideratu du, eta Arrimadasi erraztu dio desmoralizatuta dauden eta beldurraren kanpainaren eragina izan duten langileen botoak irabaztea.

Errealitatea, ordea, Alberto Garzónnek eta Pablo Iglesiasek esaten dutenaren aurkakoa da. “Eskuinek irabazi dute” diote, beren ezgaitasuna eta erreferendum itunduaren diskurtso adiskidetzailerik zein zentzugabeak bezalakoak ezkutatzeke, masei errua botatz. Estatu espainiarraren eta 78ko erregimenaren izaera errepresibo eta frankista da milioika pertsona bultzatu dituen erregimen horrekin behin betiko bukatzea, Kataluniako errepublikaren alde borrokatzea eta hori arazoak konpontzeko lehen pausotzat hartzea. Unidos Podemos eta Catalunya en Comú alderdiek errepublika katalana defendatuko balute, PPren ustelkeria gogor salatuz eta programa soziala babestuz, posible litzateke Rajoyren gobernua garaitzea, 78ko erregimenari kolpe gogorra ematea eta estatu osoan errepublikaren aldeko borrokari bidea irekitzea.

Borrokatzen duen ezkerren fronte bateratuaren alde, langileen eta herritarren errepublika eraikitzeke

Beharbada, ezkerreko militante eta ekintzaileak gehien harritu dituen emaitza izan da JuntxsCat-ek ERC garaitu duela eta CUPEk atzera egin duela, bai eserlekuetan eta bai botoetan. Akatsa da, ordea, JuntxsCat-en



9. ORRIAN HASTEN DA

aldeko botoa PDeCAT babestearekin lotzea. Milaka eta milaka gaztek, erdi mailako geruzetako sektoreek eta baita langileen sektore batek PDeCATekin eta Convergenciarekin hautsi arren, JuntxsCat-i eman diote babesa, Puigdemont espainiar estatuaeren errepresioari aurre egin dion pertsonatzat eta exiliotik bloke monarkikoaren eta errepresioaren aurkako borroka antolatzen eta salatzen ari den buruzagitzat ikusten baitute. Hautesle askok JuntxsCat-en zerrenda ANCekin erlazionatu dute. Beraien kanpaina indartsuagoa izan da ERCko batzuen bano, Forcadell, Robira eta Junqueras adibidez, aldebakarreotasunari uko egitea eta 155a akatatzen zutela esan zutenean. 155aren blokearen garaipena eskuratzeko arriskuak eragin du botoak Puigdemonten eskuetan biltzea, ERC bigarren lekuan uzteko.

Era berean, horrek erakusten du ez dela nahikoa kanpaina errepublikari eduki soziala eman behar zaio la planteatzea. Azaldu izan dugunez, CUPEko kideek paper garrantzitsua jokatu zuten U1eko erreferendumean, CDRetan eta kalean borroka eginez PPren, Csen eta PSOEn errepresioaren aurka. Halere, CUPEk hau-

teskunde hauetan ordaindu du alderdiko agintariekin egindako akatsa, Gobernuean PDeCAT alderdiari babesa ematean, aurrekontu murriztaileen aldeko botoa ematean eta JxSí-renganako izan duten politika segidistan. Politika hori azken hilabeteetan ere mantendu da. Ez du garatu klaseko estrategia independente bat urriaren 1, 3 eta ondorengo geratera erabakigarrietan ere, PDeCATeko buruzagiak ezkerretik gaudituko zituena eta langileen eta herritarren errepublika katalanaren aldeko borroka aurrera bultzatuko zuena. Kanpaina erdian eta oinarrien presioaren eraginez, ezkerrean zoko biraketa hartu duenean beranduegi izan da.

Zer gertatuko da hemendik aurrera?

A21ko hauteskundearen emaitzak amesgaizto dira burgesia espainiarrentzat eta katalanarentzat. Zer gertatuko da hemendik aurrera? Zaila da esaten baina beharrezkoa da funtsezko joerak aztertzea. Ciudadanosek PPren oinarri soziala irentsi du eta hori Estatu mailara zabaltzeko daiteke. Horregatik ez da probablea PP eta Estatua independentismoarekin negoziatzen hastea, badakitela Ciu-

dadanos atzean edukiko dutela horren aurka. Prozesu judizialak eta errepresioa ez dira baretuko. Estatuak PDeCATeko eta ERCko politikari burges eta burges txikiak biguntzeko saiakerari ekingo dio beraiek ukatu dezaten errepublikaren aldeko borroka. Unidos Podemosek Katalunian jasandako porrotak ondorio sakonak ditu. Gizartea eraldatzeko borrokan nazio zapalkuntzak jokatzen duen papera ulertu gabe, uko eginez errepublika katalanaren alde borrokatzea eta azken hilabeteetako eskuinerako biraketa, Estatu mailako desmobilizazioa eta itun parlamentarioen bidez Rajoy Moncloatik ateratzeko saiakeren porrotak... desastre berriak egiteko errezeta dira.

A21an kolpe gogorra jaso zuen krisi iraultzailearekin amaitzeko eta bloke monarkikoaren kontrola bermatzeko helburuak. 155aren aldeko blokeak porrot egin du eta Katalunian krisi politiko eta sozialak aurrera jarraituko du, Estatu atzerakoi honek ez baititu aseko herri katalanaren aspirazio legitimoak. Testuinguru honetan funtsezkoa da errepublika katalanaren eta erabakitze eskubidearen aldeko borrokan pisua izan duten mugimendu sozialek eta ezkerreko alderdiek kaleko mobilizazioa berreskuratzeko. Errepresioari aurre egiteko, presoak askatzeko eta 155arekin amaitzeko, ezinbestekoa da masen ekintza ikusgarri eta indartsua. Hori da CUP, Som Alternativa, CDR eta borrokatzen duen ezkerreko erakunde eta ekintzaile guztiok dugun eginkizuna.

Prozesu guztiak eta hilabete haue-tako gertaerak alternatiba kontsekuente bat altxatzeko beharra erakutsi dute, ez dena PDeCATen menpe egongo. Ezta beren ezgaitasuna erakutsi duten politikari burges eta burges txikien menpe ere, ez baitaude prest azkenera arte eramateko autodeterminazio eskubidearen aldeko borroka eta ez baitaude kapitalismoaren logikarekin hautsi nahi (zapalkuntza nazional eta sozialaren kausa dena). Hori da Esquerra Revolucionariak Katalunian (eta Ezker Iraultzaileak Euskal Herrian) defendatzen dugun estrategia, ezkerrekoa, iraultzailea eta antikapitalista.

Borrokak aurrera jarraitzen du sektore soziosanitarioan

Mobilizazioaren batasunaren eta borrokan dauden sektore guztiak elkartzearen alde!

OIER NAVARRO

Sektore soziosanitario pribatuko langilea, LAB Arabako afiliatua eta Ezker Iraultzaileko militantea

Zerbitzu soziosanitarioko sektoreko kolektiboen lanpostu eta lan baldintzak okertzen ari dira, egunez egun, arlo publiko zein pribatuan. Bizkaiko garbiketako langileek egindako borroka eredugarriari gizartearentzat ikusezin diren eta baldintza latzak dituzten beste hainbat kolektiboren borrokak gehitu behar zaizkie.

Sektore horien artean daude Arabako Osasun Mentaleko eta Etxeko laguntzetarako langileen borrokak eta Arabako egoitza pribatuetako, Bizkaiko Aspace egoitzako eta Pasaiako udal egoitzako langileen borrokak. Azken horiek orain dela gutxi salatu dute jasaten duten oinarri-zko eskubideen urraketa. Horiekin batera, Iruñeko Asistencial Villa de Beteluko langileak borrokan ari dira, ukatu zaizkien oinarri-zko lan eskubideen alde.

Azpmarratzekoa da azaroaz geroztik etxeko laguntzaileek egindako deia indarrak elkartzeko eta sektore guztiak batera mobilizatzeko; gainera, publikoki salatu dituzte Eusko Jaurlaritza eta udalak, zerbitzu sozial horiek kudeatzeko moduagatik. Era berean, gogor salatzen dute zerbitzu horiek ez duela asistentzia bermatzen,



ezta horren beharra duten pertsonen oinarri-zko estaldura ere. Bizkaian, ordu kopurua %30era murriztu da, LABek azaltzen duenez, baina egoera antzekoa edo okerragoa da gainetako probintzietan.

Kasu batzuetan erresidente bakoitzeko eguneko 30 minutuko zerbitzua onartu da! Lotsagarria da erakundetatik erresidenteei eta erabiltzaileei esaten zaiena: laguntza ekonomikoak eska ditzatela aholkatzen zaie, baina ez dira nahikoak mendekotasuna duten pertsona horien zaintza profesionala bermatzeko.

Sektore zapaldu honetako langile gehienak emakumeak dira; beraz, zapalkuntza bikoitza dute: emakume

eta langile izateagatik. Emakume horiek dira beren esfortzuarekin, beren kermen eta borondatearekin lanpostu horiek duintzen dituztenak, lan baldintza latzetan. Hego Euskal Herrian, egoitza pribatuen negozioa hazten ari da, eta egoiliarak etekin maximoari begiratzen dion negozio pribatuen esku geratzen ari dira, arreta murriztuz.

Sektoreko langile garen heinean, batasun sindikalaren eta borrokan dauden langileen beste sektoreekin batera ekintza batasunaren aldeko aldarria egiten dugu. Era berean, beharrezko ikusten dugu gehiengo sindikalak plataforma bat osatu dezan, gure eskubideak defendatu eta galdutakoak berreskuratzeko.

**Defendatu sozialismoaren aldeko ideiak gurekin!
Lagun iezaguzu aldizkaria Euskal Herri osoan zabaltzen!**

www.euskalherriasozialista.net • euskalherriasozialista@hotmail.com • Tel.: 685 708 281
Twitter: @EHSozialista - @EzkIraultzailea • Facebook: Ezker Iraultzailea - Euskal Herria Sozialista

EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN! LAGUNDU LANGILEEN PRENTSA ZABALTZEN!!!

Lagun iezaguzu sozialismoaren aldeko borroka bultzatzen zure harpidetzarekin!!

Urteko harpidetzak (6 ale) 10 euro balio du.

Hezkuntza publiko ez unibertsitarioko greba eta mobilizazioak EAEan

Irakasle, langile eta ikasleak elkarrekin borrokan aurrera jarraitu behar dugu, kalitatezko hezkuntza publiko eta euskaldun baten alde! • Heziberri eta 3+2 kanpora!

IKASLE SINDIKATUA

Pasa den abenduaren 12an Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan Irakaskuntza Publiko ez unibertsitarioko milaka irakasle eta langilek greba egun bateratua egin zuten ELA, LAB eta STEILAS sindikatuak eta baita CCOO eta UGT sindikatuak deituriko greba egunean. Greba egun hau ELA, LAB eta STEILASEk udazkenean hezkuntza publikoan bultzatu zituen mobilizazioen puntu goren gisa planteatu zen.

Ikasle Sindikatutik beste behin bat egin dugu borroka honekin, ikasleak hezkuntza publikoaren aldeko borrokaren garrantziaz kontzientziazatuz eta irakasle eta langileekin batera kalera ateratzera deituz. Aurreko ikasturte hasieran errebalida frankisten aurka ikasleek hasi genuen borroka masiboaren ondoren,

udaberrian irakasle eta langileak jarraitu zuten ikasleekin batera Eusko Jaurlaritzak euskal hezkuntza publikoan mantendu dituen murrizketa politiken eta Heziberriren —euskal LOMCEaren— aurka.

EAJ-PSEren jarrera, beste behin, mobilizazioaren aurka egitea izan da, hori kriminalizatuz eta arrazoirik ez dagoela esanez, bertan bizi den egoera prekarioa eta arazoak ezkututzen saiatuz. Ez da harritzekoa ordea beren jarrera. EAEan hezkuntza pribatu eta kontzertatuaren negozioa inon baino handiagoa da eta bertara bideratzen den diru publikoan patronalek dituzten interesak defendatu nahi dituzte. Hezkuntza publikoaren egoera tamalgarria, krisi kapitalistaren aurrean enpresari handiak eta bankariak are gehiago aberasteko eta langi-

le familien bizi maila zentzu guztietan okertzeko politiken ondorio zuzena da. EAJ betidanik izan da politika hauen defendatzaile, PP eta PSE bezala. Horien arabera, ez dago dirurik zerbitzu publiko eta sozialetarako, funtsean enpresariak aberastu behar direlako. Beraz, ordaindu dezakeenak bakarrik edukiko du kalitatezko hezkuntza edo osasungintza, etab. jasotzeko aukera.

Esate baterako, EITBk urtero gabonetan antolatzen duen maratoin aurrean bildu dena AHTren 6 metro kostatzen den berbera. Hor argi ikusten da, kaltetarako besterik ez diren AHT eta Zubietako erraustegian milaka euro gastatzen dituzten bitartean, gizarteak beharrezkoak dituen zerbitzuetan murrizketak egiten direla. Dena beste behin, enpresa pribatuak aberasteko helburuarekin.

Egoera hau iraultzeko min gehien egiten zaien tokian jo behar zaie: kaleko mobilizazioan. Horregatik borrokak aurrea jarraitu behar du. Horrela lortu zen pasa den ikasturtean errebalida frankistak eraistea. Kaleko borrokarekin lortu ziren eskubide sozialak, hezkuntza publikoa barne, eta modu horretan bakarrik defendatu ahalko ditugu. Horregatik, beharrezkoa da kaleko borrokarekin jarraitzea, EAJ-PSEren Eusko Jaurlaritzak —PPekin aliatua dagoena— atzera egin arte eta gure aldarrikapenak onartu arte.

Udazkeneko eta Abenduak 12ko mobilizazioak aurrerapauso bat izan dira Hezkuntza Publikoaren aldeko borrokan. Urte berrian borrokak aurrera jarraitu behar du, batasun eta indar handiena lortuz irakasle, langile eta ikasleen artean.





Geure buruak bizirik nahi ditugu! Aske eta borrokalaria!



Azken urteotan milioika emakume kalera atera dira mundu mailan, izugarritzko indarrarekin borrokatuz eta sistema erabat matxista honetan bereziki emakumeok jasaten dugun biolentzia eta esplotazioa salatuz. Guri ordainarazten dizkigute modurik krudelenean austeritate planen ondorioak, Troikak edota Madrileko PPren gobernuak eta hemen EAJ-PSErenak inposatzen dituzten pribatizazio eta murrizketekin.

Biktima kriminalizatzen eta erasotzaileak babesten dituen justizia matxista

Azken hilabeteetan, sistema honen, bere justiziaren eta estatu aparatua- ren izaera guztiz atzerakoi eta matxis- ta agerian uzten duten kasu aipaga- rriak ikusi ahal izan ditugu. Juana Rivasen edo la Manadaren biktima gaztearen kasuek argi erakusten du- te. Arazoa ez da soilik norbanako edo epaile matxistak daudela. Sistema honen egitura guztiak gogor kolpa- tu nahi gaitu mezu argi bat bidaltze- ko emakumeoi: Kontuz! Bizi duzuen errealitatea salatzen baduzue, tratu txarrak, biolazioak, sexu-jazarpena edo edonolako biolentzia mota iza- nik ere, zuen bizitzako aspektu guz- tietan epaituak izango zarete, eta ez epaitegietan bakarrik, baita telebis- tako platoetan ere!

PPren eta EAJ-PSEren murrizketak hiltzaileak dira. Hipokresiarik ez!

Joan den urtean 90 emakume erail di- tuzte espainiar Estatuan, eta indarke- riazko 4.519 salaketa egon dira EAEn esaterako. Biktima berri bakoitzeko betiko erretolika entzun beharrean izaten gara. PPko ordezkariak serio jartzen dira, isiltasun minutuak egi- ten dituzte eta galdetzen dute... Zer- gatik ez zuen salatu? Gero berdinta- sunaren defendatzaile agertzen dira, eta buruzagi batzuk feministak direla esatera ere ausartzen dira. Ezin dai- teke hipokritagoa izan. Beraiek dira zerbitzu sozialetan murrizketa han- diagoak eginez gure bizkarren gai- nean zamatzen dutenak etxeko eta zaintza lanak; beraiek inposatzen du- te erlijioa ikasgeletan gero eduki atze- rakoiak zabaltzeko abortu eskubidea- ren edota homosexualitatearen aurka, familian emakumeak izan behar duen paperaren gainean... Emaku- meak etxeetatik kaleratzen dituzte, epaileek beren seme-alabak eraso- tzaile bati entregatzera behartzen di- tuzte; ez dute inolako laguntza ekono- miko eta materialik ematen biolentzia sufritzen duten emakumeentzat... Horiek dira soldata eskala bikoitza- rekin enpresariak urrezko egiten di- tuztenak, dependentsia ekonomikora kondenatzen gaituztenak. Beraiek di- ra egoera honen lehen arduradunak!

Sistema honen defendatzaile sutsuak, biolentzia matxista mantentzen eta elikatzen dute beren pribilegio ekono- mikoak defendatzeko!

Martxoaren 8an, denok grebara biolentzia matxistaren aurka!

Gure ustez beharrezkoa da errealita- te honen aurka beren ahotsa altza eta kaleak hartu dituzten duten emaku- me guzti horien eredu jarraitzea. Soilik mobilizazioaren, antolakun- tzaren eta borrokaren bidea jarrai- tuz lor dezakegu egoera hau aldatzea. Eta horregatik datorren martxoaren 8an —emakume langilearen egun in- ternazionala— aztarna utziko duen mobilizazio egun handi bat izan da- din nahi dugu. Horregatik dei egiten diegu institutu eta unibertsitateetako ikasle guztiei Estatu mailan egingo den greba orokorrera batzea, eguer- dian burutuko ditugu manifestazioe- tan parte hartuz kaleak borrokaz be- tetzera eta baita arratsaldeko mobi- lizazioetan ere, bidezko aldarrikapen hauek defendatzen eta babesten di- tuzten langileekin batera.

**Denak grebara
martxoaren 8an!
Denak manifestazioetara!**

Sozialismoa eta nazionalismoa

James Connolly • 1897

Irlandan, gaur egun, hainbat erakunde ari dira lanean sentimendu nazionala herriaren bihotzean gorde dadin.

Dudarik gabe, erakunde hauek, bai gaelikoa kontserbatzeko mugimenduak, bai literatura elkarteak edota oroimen komiteak izugarritzko lan gogoangarria egiten ari dira, etorkizunean garrantzi handikoa izango dena herrialde honentzat, bertako nazio eta arrazaren* historia gure jendearen hizkuntza eta ezaugarriak desagertetik salbatzen lagunduz.

Hala ere, egun erabiltzen diren propaganda metodoenganako gehiegizko zorrotasuna egoteko arriskua badago, eta eguneroko auzienganako axolagabekeria horrek gure ikerketa historikoak gaizkitu ditzake, hauek estereotipatzen, iragana gurtzen, eta nazionalismoa tradizio batean kristalizatzen, heroikoa eta aintzagarria bai baina, dena den tradizio soil batean.

Tradizioek askotan, eta normalean ala gertatzen da, erruki loriatsurako materiala eskaini dezakete, baina ez dira inoiz iraultza arrakastatsu baten ekaitzaren gainean ibiltzeko behar bezain indartsuak.

Egungo mugimendu nazionalak ez baditu soilik gure iraganeko tragedia tristenak berbizi besterik egin nahi, gai izan behar du momentu honetako beharren mailara altxatzeko.

Irlandako herriari erakutsi behar zaio gure nazionalismoa ez dela iraganaren idealizazio bigun bat bakarrik, baizik eta gai dela erantzun ezberdin bat emateko egungo arazoei eta etorkizuneko beharrei egokitzeke gai den programa politiko eta ekonomiko bat aurkezte duela.

Idea politiko eta sozial konkretu hau modu hoberenean betetzeko bidea, nire iritziz, nazionalista sakrifi-

katuenek modu zintzo batean beren helmuga gisa errepublika onartzeak eskainiko du.

Ez Frantziakoa bezalako errepublika bat, non presidente hautatua daukan monarkia kapitalista batek Ingalaterraren abortu konstituzionalak parodiatzen dituen eta, Moskuko despotismoarekin aliantza irekian, bere usadio iraultzaileen ukatzeaz harropuzten dena.

Ez Amerikako Estatu Batuen gisako errepublika bat, non diru-zorroaren botereak tirania berri bat sorrazi duen askatasun formen azpian; non, azken kasaka gorri britainiarren oinek Bostoneko kaleak zikindu zituenetik ehun urte igaro ondoren, lur-jabe handi eta finantza-gizon Britainiarrek Ipar Amerikako herritarrei morrontza inposatu dieten, horrekin alderatuta iraultzaren aurrez inposatutakoa huskeria soil bat izanik.

Ez! Nire herrikideentzako ezarri nahiko nukeen errepublikak, uneoro, haren izendatze hutsarekin herrialde guztietako zapalduentzat argi izpi bat irudikatu beharko luke, uneoro mantenduko duena askatasunaren eta oparotasunaren promesa, haren izenean egindako ahaleginen truke.

Nekazari maizterra, alde batetik lur jabe handien eta bestetik, konpetentzia estatubatuarraren artean, errota honen bi harrien erdian harrapaturik dagoena; soldatapeko langile hiritarrak, bultzada kapitalistaren esklabutzaaren ordainketak sufritzen dituztenak; jornalariak, haien bizi osoan zehar gogor lan egiten dutenak gorpua eta arima elikatzeko nekez heltzen zaien soldata baten bila; hain zuzen, langile saiatu guztientzat, haien miseriarengan mantentzen da eta zibilizazio modernoaren egitura



Dublin
1900

itxuraz dirdiratsua, Irlandako Errepublika haien sufrimendua konjuratuko duen hitza izan daitekeelako, gaitzusteentzako elkargune bat, zapalduentzako babesgune bat, eta giza askatasunaren kausaren babesle sutsu diren sozialistentzako abiapuntu bat.

Lotura horrek, gure nahi nazionalena eta sistema kapitalista eta latifundistaren aurka —Britainia Handiko Inperioa izanik horren babesle sutsuen eta oldarkorrena— iraultzaren bandera altxatu duten gizon-emakumeen itxaropenarekin elkartzeak, ez luke inola ere desadostasuna sorrarazi behar nazionalista serioenengan. Irlandaren aldeko kausa Benburbgeko egunetik aurrera izan duena baino maila altuago batera eramateko nahikoa indar moral eta fisikoarekin harremanetan jartzeko balio behar luke.

Aitzakia gisa esango da, errepublika sozialista baten ideiak inplikaturako iraultza politiko eta ekonomikoak, gure erdi mailako klaseko jarraitzaileak eta aristokratak alienatuko dituela, haien jabetza eta pribilegioen galeraren beldur izango baitira.



Ze esan nahi du objektzio honek? Irlandako pribilegiadun klaseekin adiskidetu behar dugula!

Haien areriotasuna gelditzeko modu bakarra Irlanda aske batean haien “pribilegioak” ez direla ukituko ziurtatzea da. Hau da, bermatu behar zaie Irlanda atzerriko agintetik aske gertzen denean, irlandar soldaduak, berdez jantzita, kapitalista eta lur-jabeen irabazi ustelak “txiroen esku mehetatik” babestu beharko dituztela, hain zuzen ere, Ingalaterrako mandatariek haien uniforme eskarlatekin eta gupidarik gabe egiten duten modu berean.

Klase horiek ez zaizkizue batuko ez bada oinarri horiekin. Eta masek ideia horren alde egitea espero duzue?

Irlanda askatzeaz hitz egiten duzuenean, Irlandako lurra osatzen duten elementu kimikoetatik hitz egiten duzue? Edo herri irlandarrari buruz ari zarete? Azken honi buruz ari bazarate, zertatik askatu nahi duzue? Ingalaterraren agintetik?

Baina administrazio politiko edo gobernu makinaria sistema guztiak ez dira oinarrian dauden forma ekonomikoen isla bat besterik.

Irlandako aginte ingelesa konkistatzaile ingelesek iraganean herrialde hau espoliazioan, hilketan eta iruzurrean oinarritutako jabetza sistema bat indarrez ezartzearen ikurra da; gaur egun horrela sortutako “jabetza eskubideak” gauzatzea legezko iruzur eta espoliazioarekin jarraitzea inplikutzen dute. Dominazio ingelesa gobernu modu egokiena bezala azaldu zen espoliazioa babesteko, eta gudaroste ingelesa erremintarik malguena da hilketa judiziala gauzatzeke, klase menderatzaileen beldurrek ala eskatzen dutenean.

Hizkuntza ingelesaren antzera gurea izango balitz hartu dugun zibilizazio sistema materialista basati hau, erroitik suntsitu nahi duen sozialista askoz arerio hilgarriagoa da ingeles menderakuntzarentzat azaleko pentsalaria baino, izan ere, Irlandako askatasuna menderatze ekonomikoaren itxura maltzur baina zorigaiztokoarekin adiskidetu daitekeela pentsatzen baitu: Lur-jabeen tirania, iruzur kapitalista eta lukurreria zikina; konkista normandiarraren zorigaiztoko fruituak, Strongbow eta Diarmuid Mac-

Murchadha “lapur normandiar eta traidore irlandarra” trinitate lotsagabearen aitzindari komenigarri eta apostolu izan zirenak.

Bihar gudaroste ingelesa kanpotratzen baduzue eta ikurrin berdea altxatu Dublingo Gazteluan, ez baduzue Errepublika Sozialistaren antolakuntza hasten, zuen ahalegin guztiak alferrikakoak izango dira.

Ingalaterraren menpe egoten jarraituko duzue. Haien kapitalisten eta lur-jabeen bidez menderatuko zaituzte, haien finantzarien bidez, gure amen malkoak eta martirien odola isuriz herrialde honetan landatu dituzten instituzio indibidualista eta komertzial mordo bidez.

Ingalaterrak zuen galerara arte menperatzen jarraituko zaituzte, baita zuen ezpaineak traizionatu zenuten askatasun horren aldareari omenaldi hipokritak egin arren ere.

Nazionalismoa, sozialismorik gabe —gizartea berrantolatu gabe Erin zaharraren egitura sozialaren oinarrian zegoen jabetza komunaren baitan hori zabalduz eta garatuz—, ez da nazionalismo koldar bat baino.

Gure menderatzaileek haien justizia eta moralaren ikuspuntu zikina ezartzen arrakasta izan dutela publikoki onartzearen baliokide litzateke, eta azkenik gureak balira bezala onartu genituela, horiek inposatzeko gudaroste kanpotar baten beharrik gabe.

Sozialista bezala, prest nago gizon batek egin dezakeen guztia egiteko gure amalurrarentzat bere bidezko herentzia lortzeko: independentzia. Baina justizia sozialaren aldarrikapen txikiena alde batera uzteko eskatzen badidazue klase menderatzailearen onespina lortzeko, orduan uko egingo diot.

Horrelako ekintza, ez litzake ez duina ez egingarria izango. Ez dezagun ahaztu deabruarekin batera doana ez dela sekula zerura iristen. Beraz, frogatu dezagun modu irekian gure ustea. Gertaeren logika dugu lagun.

* XIX. mendean eta XX. mendeko lehen hamarkadetan, ohikoa zen *arraz*a eta bere deribatuak bereiztasun etniko eta kulturalengatik ezberdinduriko giza taldeak izendatzeko erabiltzea, terminoei definizio konkreturik eman gabe eta egun dituzten konnotazioak zertan eduki gabe.

A21 Katalunian: 155 blokearen porrot historikoa

Urriaren 1ean mobilizatu zen herri berbera masiboki mobilizatu da Kataluniako errepublikaren alde

ESQUERRA REVOLUCIONÀRIA

Abenduaren 21eko hauteskundeetan aurrekaririk gabeko porrot gogorra jasan du 155aren aldeko blokeak eta, batez ere, haren bultzatzaile nagusiak, PPK. Klase dominatzailearen komunikabideak saiatu dira porrota disimulatzen, Arrimadasen eta Ciudadanos alderdiaren garaipena

na azpimarratuz. Halere, ez dago aitzakiarik: Junts per Catalunya (JuntsxCat) eta ERCk 66 eserleku lortu dituzte eta Cs alderdiak baino 800.000 boto gehiago.

Emaitza horiek garrantzi handikoak dira, kontuan hartzen badugu hauteskundeak eskubide demokratikoen aurkako mehatxuz beterik egon

direla. Gainera, burgesia espainiarra eta kataluniarra etengabe eta desesperatuki saiatu da errepublika katalanak duen babes masiboaren edozein agerraldi geldiarazten.

Hauteskundeetarako deia egin zenetik, PPren gobernua errepublikaren aldeko botoa desmobilizatzen saiatu da, esanez aldekoek irabaziz gero 155ak indarrean jarraituko lukeela eta errepresioa areagotuko litzakela. Urriaren 1 eta 3az geroztik burgesia espainiarrak eta kataluniarrek bultzatu duten "beldurra- ren kanpainak" aurrera jarraitu zuen hauteskunde bezperan eta egunean bertan. Hori guztiari gehitu behar zaio JuntsxCat eta ERC alderdiek kanpaina hautagairik gabe egin behar izan dutela, Jordiak eta Oriol Junquerasek kartzelan jarraitzen baitute eta argi esan zutelako Puigdemont atxilotuko zutela Katalunia zapaltzea bururatzen bazitzaion.

8. ORRIAN JARRAITZEN DU

Antolatu zaitez

EZKER 
IRAULTZAILEAN

Euskal Herria Sozialista baten
alde borrokatzeko

- Kanpora 155a! Preso politiko guztiak askatu. Kanpora Polizia Nazionalaren eta Guardia Zibilaren indarrak Kataluniatik.
- Lan eta pentsioen kontraerreformen indargabetzea. Jubitazioa 60 urtetara soldataren %100arekin eta errelebo kontratuak gazteentzat.
- 1.100 eurotako gutxiengo soldata eta 35 orduko lanaldia astean, soldata murrizketarik gabe.
- Etxe kaleratzeak debekatzea. Etxebizitza publikoen parkeak alokairu sozialekin, bankuen eskuetan dauden etxebizitzak desjabetuz.
- Pribatizaturiko zerbitzu publikoak bermunizipalizatzea, langileak mantenduz eta ugarituz eta lan eskubideak errespetatuz.
- LOMCE eta 3+2 kanpora. Kalitatezko hezkuntza publikoa, demokratikoa eta doakoa, haurtzarotik unibertsitatera arte.
- Osasungintza publiko duin, doako eta unibertsalerako eskubidea.
- Benetako elkartasun konkretua errefuxiatuekiko: kuporik eta barneratze esparrurik ez. Atzerriko Legearen indargabetzea eta CIEak ixtea.
- Adierazpen, bilera eta antolakuntza eskubideak osorik bermatzea. Mozal legearen indargabetzea.
- Bankaren eta sektore estrategikoen nazionalizazioa, pertsonak erreskatatzeko eta gehiengoaren ongizatea bermatzeko.
- Autodeterminazio eskubidearen alde, Katalunyan, Euskal Herrian eta Galizan. Errepublika sozialista katalanaren alde, eta errepublika sozialista federal baten alde, Estatu espainiarra osatzen duten herrien eta nazioen batasun libre eta boluntarioan oinarritua, horrela erabakitzen badute.